



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSA OHARRA  
2015/11/27

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek, 1807an Bizkaiko Jaurerriak agindutako aita Lerinen Foruei buruzko argitaratu bako azterlana argitaratu dabe**

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentek Donemiliagako komentua (Errioxa) bisitatu dau gaur, 1807an, Bizkaiko Jaurerriak aginduta, Fray Domingo de Lerin y Clavijok idatzi eban azterlanaren eskuz idatzitako kopia bat dagoan lekua. Azken mende biak argitaratu barik egon da. Bertan, Arabako Bolibarren eta Donemiliagan egin ebazan hainbat urte euskal foruak aztertzen emon ebazan Cadizko beneditarrak, eta XIX. mendean euskal foruak indar barik izteko erabili izan zan oinarri intelektual sendoena izan zan eta Juan Antonio Llorentek idatzi eban “Noticias Históricas de las Tres Provincias Vazcongadas” lanaren liburukietan esaten danari kontra egiten deutso. Eskuz idatzitako kopia hori monasterio horretako artxibategian kontserbau dau Fray Juan Bautista Olarte liburuzainak, agustindar errekoletok.

Datorren martitzenean Batzar Nagusietan aurkeztuko dan liburu horren lehenengo aleak monasterio horretako fraide prioreari, aita Pedro Merinori, emon gura izan deusaz Ana Otadui. Beragaz batera, Domingo Lerinen paperak eta Donemiliagako Monasterioan kontserbetan diran beste ondare altxor batzuk ikusi ahal izan ditu.

Lerinen ohar kritikoak Jose Maria Gorordok aurkitu ebazan –Llorenteren beste lan batzuk bilatzen ari zala, hain zuzen be– eta garai haretan Batzar Nagusietako presidentea zan Ana Madariagari jakinarazo eutsan aurkitutakoa, eta Bizkaiko Batzarretako arduradunak Errioxako monasterioagaz hartu emonetan jarri ebazan, lan horreek argitaratzeko modua aztertzeke. Gorordo izan da argitalpen horren koordinatzailea. Bertan, egilearen berbetan, banan-banan egiten jake kontra Llorentek idatzitako liburuki guztiei. Laburbilduz, aita Lerinek hiru Lurralde Historikoen eskubideakaz jarraitzearen alde egiten dau lan, foruen kontrako burrukalari nabarmena izan zan Juan Antonio Llorenteren lanaren kontra agertuz.

### **ARGITALPENAREN AURKEZPENA**

Arlo horretako teknikariek egin beharreko alderatzeak egin ditue, Errioxako komentuko liburutegian aurkitutako lanaren egiazkotasuna ziurtatzeko, eta horren ostean Lerinen testuen transkripzio paleografikoa egin da, ezagutuarazoteko. Emaizta, argitaratu bako alea da, printzipioz euskal ikerlarientzat eta intelektualentzat argitaratuko dana, eta datorren martitzenean, abenduaren lein aurkeztuko dana Batzar Nagusien Bilboko egoitzan (K/Hurtado de Amezaga, 6). Arratsaldeko 18:30ean hasiko dan ekitaldian Jose Maria Gorordo argitalpenaren egilea egongo da, eta bergaz batera, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentea eta Mitxel Unzueta jurista, senatari eta Real Sociedad Bascongada de Amigos del País erakundearen Bizkaiko Batzordeko presidente izandakoa egongo dira.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
27/11/2015

## **Juntas Generales de Bizkaia edita un estudio inédito sobre los Fueros del padre Lerín encargado por el Señorío de Bizkaia en 1807**

La presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui ha visitado hoy el convento de San Millán de la Cogolla (La Rioja) donde descansa una copia manuscrita del estudio que Fray Domingo de Lerín y Clavijo escribió por encargo del Señorío de Bizkaia en el año 1807, y que ha permanecido inédito desde hace dos siglos. En ellos, el benedictino gaditano, que dedicó varios años de su estancia en Bolívar de Álava y San Millán de la Cogolla al estudio de los Fueros vascos, rebate los tomos de las “Noticias Históricas de las Tres Provincias Vazcongadas” escritos por Juan Antonio Llorente, principal fundamento intelectual esgrimido en el siglo XIX para la abolición de los Fueros. Esta copia manuscrita ha sido conservada en el archivo de este monasterio por el bibliotecario Fray Juan Bautista Olarte, agustino recoleto.

Ana Otadui ha querido entregar los primeros ejemplares de este libro, que será presentado el próximo martes en Juntas, al fraile prior de este histórico monasterio, Padre Pedro Merino, con quien ha podido contemplar los papeles de Domingo Lerín y otros tesoros patrimoniales conservados en el Monasterio de San Millán de la Cogolla.

El descubrimiento de las notas críticas de Lerín lo realizó José María Gorordo -precisamente buscando otras obras de Llorente-, quien comunicó a la presidencia de las Juntas Generales, entonces con Ana Madariaga al frente, el hallazgo, y puso en contacto a los responsables del parlamento vizcaíno con el monasterio riojano para ver la manera de sacar a la luz dichas obras. Gorordo ha sido el coordinador de esta publicación que rebate uno a uno, según su autor, los tomos escritos por Llorente. En resumen, el padre Lerín realiza sus trabajos a favor de la persistencia de los derechos de los tres Territorios Históricos, contraviniendo la obra de Juan Antonio Llorente, destacado antiforalista.

### PRESENTACIÓN DE LA PUBLICACIÓN

Técnicos en la materia han hecho los cotejos correspondientes para certificar la validez del hallazgo en la biblioteca del convento riojano, tras lo cual se ha procedido a la transcripción paleográfica de los textos de Lerín para su difusión. El resultado es un ejemplar inédito, editado en un principio para investigadores e intelectuales vascos, que será presentado el martes próximo, 1 de diciembre, en la sede bilbaína de las Juntas Generales (C/Hurtado de Amezaga, 6). El acto, que comenzará a las 18.30 h., contará con la presencia del autor de la publicación, José María Gorordo, al que acompañará la presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, y el jurista Mitxel Unzueta, exsenador y expresidente de la Comisión de Bizkaia de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País.